**Azalpen txostena, Ogasun eta Finantza Departamentuaren aurrekontuak indarrean dagoen aurrekontuarekin alderatuta agertzen dituen desberdintasun nagusiei buruz, eta hura prestatzeko erabilitako irizpideei buruz.**

Interes tasek 2023an gora egin izanak, soldaten erosahalmena berreskuratzeak eta jarduera ekonomikoa pandemiaren aurreko mailetara iristeraino normalizatzeak Europako batez bestekoaren gainetik dagoen hazkunde ekonomikoa ekarri dute berekin. 2024rako hazkunde aurreikuspenak dezelerazio joera batean kokatzen dira tentsio geopolitikoak areagotzearen ondorioz, eta horrek beste disrupzio bat eragin lezake merkatu energetikoetan eta merkataritza trukeetan, baita tentsio inflazionistak sortu ere hazkunde ekonomiko txikiko egoera batean.

2024ko aurrekontua ingurune ekonomiko horrek baldintzatuko du; bertan, zergen bidezko sarrerek goraka jarraituko badute ere, pandemiagatik aktibatutako Europako Funtsetatik datozen diru-sarreren desagerpenak aurreko urteko mailetan uzten du departamentuaren gastu ahalmena.

Laburbilduta:

– 010 programak -Zerbitzu orokorrak- beharrezkoak diren baliabide gehienak biltzen ditu ondorengo helburua inplementatzeko: Departamentua administrazio modernoaren erreferente bihurtzea antolaketaren eta berrikuntza teknologikoaren ikuspegitik, herritarrei arreta emateko eta iruzurraren aurka egiteko. Hortaz, 2024an programa honek Idazkaritza Teknikoak garatu beharreko baliabideak eta ekintzak biltzen ditu, inbertsio teknologikoa lehenetsiz egungo prozesuak digitalizatzeko eta administrazio elektronikoko proiektuak bultzatzeko.

– 100 programak -Ogasun Zuzendaritza Nagusia- zerga iruzurra prebenitu eta aurre egiteko baliabideak jasotzen ditu, eta haren barruan biltzen dira, baita ere, iruzurraren aurkako borrokan proiektu informatiko handiak inplementatzeko behar diren partidak, Gipuzkoako Ogasunaren modernizazioan aurrera egiten lagunduko dutenak.

Programa horretan, nabarmentzekoa da TicketBAI ezartzen jarraitzea. Gainera, programak beste informatika-proiektu estrategiko batzuk ezarri eta garatzen ditu (Zerga, SII, SILIZIE, Big Data), abangoardiako baliabide teknologiko horietara bideratutako zuzkidurekin, zergadunarentzako

**Informe explicativo de las diferencias más significativas que presenta el presupuesto del Departamento de Hacienda y Finanzas respecto al vigente y los criterios adoptados en su elaboración.**

El endurecimiento de los tipos de interés registrado en 2023, junto con la recuperación de poder adquisitivo de los salarios y la normalización de la actividad económica a niveles anteriores a la pandemia, se ha saldado con un crecimiento económico por encima de la media europea. Las perspectivas de crecimiento del 2024 se enmarcan en una tendencia de desaceleración como consecuencia de la intensificación de las tensiones geopolíticas, que podría desencadenar una nueva disrupción de los mercados energéticos y de los intercambios comerciales, pudiéndose producir tensiones inflacionarias con bajo crecimiento económico.

El presupuesto 2024 va a estar condicionado por este entorno económico, en el cual, si bien los ingresos tributarios van a seguir creciendo, la desaparición de los ingresos provenientes de los Fondos Europeos activados por la pandemia, sitúan la capacidad de gasto del departamento en niveles similares al año anterior.

Básicamente:

– El programa 010 -Servicios Generales-, contiene la mayoría de los recursos necesarios para implementar el objetivo de convertir al departamento en un referente de administración moderna en términos de organización e innovación tecnológica, dirigida a la atención a la ciudadanía y a la lucha contra el fraude. En consecuencia, en 2024 incorpora los recursos y acciones a desarrollar por Secretaría Técnica, priorizando la inversión tecnológica para digitalizar los procesos actuales y el impulso de los proyectos de administración electrónica.

– El programa 100 -Dirección General de Hacienda- contiene los recursos necesarios para implementar el objetivo de prevenir y perseguir el fraude fiscal, así como las partidas necesarias para implementar los grandes proyectos informáticos necesarios para la lucha contra el fraude pero que también van a avanzar en la modernización de la Hacienda guipuzcoana.

En este programa destaca la continuación de la implantación de TicketBAI. Además, el programa aborda la implantación y desarrollo de otros proyectos informáticos estratégicos (Zerga, SII, SILIZIE, Big Data) con las correspondientes dotaciones destinadas a estos recursos

zerbitzua hobetzeko eta iruzurraren aurkako borrokan eraginkortasun-maila handiak bermatzeko.

– 110 programak -Herritarren arreta- behar diren baliabideak biltzen ditu zerga betebeharren betetze maila hobetzea xede duen helburua inplementatzeko, ongizatearen estatua bermatzen duten kontribuzioei gizarteak balio sozial handiagoa emanez eta iruzurrezko jokabideen aurrean tolerantzia txikiagoa erakutsiz.

Zerga heziketaren arloan, programari atxikitzen zaizkion ikastetxeetan zerga heziketako modulua ezartzeko beharrezkoak diren kredituak biltzen ditu programa honek, Arabako eta Bizkaiko Foru Ogasunekin eta Eusko Jaurlaritzarekin koordinatuta, bai eta zerga arloko ideia berritzaileei sariak emateko deialdiak ere.

– 200 programak -Finantza eta Aurrekontu Zuzendaritza- foru sektore publikoan aurrekontu egonkortasuna eta finantza jasangarritasuna lortzeko helburua garatzen du. Gainera, emaitzetara bideratutako aurrekontuan sakontzen eta aurrekontu programetan genero ikuspegia txertatzen jarraituko da.

– 300 programak -Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritza Nagusia- helburu hau garatzen du: zerga sistema benetako tresna bihurtzea desberdintasun ekonomikoa murrizteko, zerga eta finantza arloko arau ahalmena garapen ekonomikoaren, enpleguaren eta ongizatearen zerbitzura jarriz.

– 400 programak -Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa- erreklamazio ekonomiko-administratiboak tramitatu eta ebazteko helburua garatzen du. Ez dago nabarmendu daitekeen aldaketarik.

- Azkenik, 210 programa -Zor publikoa- eta 310 programa -Erakundeekiko konpromisoak- programa instrumentalak dira, eta haietan beharrezko sarrerak eta gastuak jasotzen dira hainbat premia betetzeko, hala nola Zor Zerbitzuarenak, konpromisoenak (Kupoa, Ekarpenak, eta Udalak Finantzatzeko Udal Funtsa) eta beste hainbat.

Abiapuntutzat hartuta gastuen aurrekontuak ez duela igoerarik izan II. eta VI. kapituluetan, aurrekontuan jasotako kopuruen diferentzia nagusiak posta-zerbitzuak, garbiketa eta segurtasun gastuei, eta iruzurraren aurkako baliabideak indartzeko gastu informatikoen hazkundeari zor zaizkio.

tecnológicos de vanguardia, con el fin de mejorar el servicio al contribuyente y garantizar altos niveles de eficiencia en la lucha contra el fraude,

– El programa 110 -Atención ciudadana-, contiene los recursos necesarios para implementar el objetivo de mejorar el cumplimiento de las obligaciones tributarias, como resultado de una mayor comprensión del valor social de las contribuciones como garantes del estado del bienestar y de la menor tolerancia social respecto a las conductas fraudulentas.

En materia de educación tributaria este programa recoge los créditos necesarios para la implantación del módulo de educación tributaria en los centros educativos que se adhieran al programa, en coordinación con las Haciendas Forales de Araba y Bizkaia y con el Gobierno Vasco, así como distintas convocatorias de premios a ideas innovadoras en fiscalidad.

– El programa 200 -Dirección de Finanzas y Presupuestos- desarrolla el objetivo de alcanzar la estabilidad presupuestaria y sostenibilidad financiera en el sector público foral. Además, se seguirá avanzando en la profundización del presupuesto orientando a resultados, así como en la introducción de la perspectiva de género en los programas presupuestarios.

– El programa 300 -Dirección General de Política Fiscal y Financiera- desarrolla el objetivo -Convertir el sistema impositivo en una verdadera herramienta para reducir la desigualdad económica poniendo la capacidad normativa fiscal y financiera al servicio del desarrollo económico, el empleo y el bienestar-.

– El programa 400 -Tribunal Económico Administrativo Foral- desarrolla el objetivo -Tramitar y resolver las reclamaciones económico-administrativas-. No hay variaciones reseñables.

– Finalmente, los programas 210 -Deuda Pública- y 310 -Compromisos Institucionales-, son programas instrumentales que recogen los ingresos y gastos necesarios para atender al Servicio de Deuda y a los compromisos de Cupo, aportaciones, fondo foral de financiación municipal y otros.

Partiendo de que el presupuesto de gastos no registra incremento para el conjunto de los capítulos II, y VI, las principales variaciones en las cifras presupuestadas obedecen al incremento de gasto destinado a los servicios postales, limpieza y seguridad, así como a gastos informáticos para reforzar los recursos de la lucha contra el fraude.

07 Departamentua OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA/
Departamento 07 DEPARTAMENTO DE HACIENDA Y FINANZAS

(Mila eurokotan/Miles de euros)

| Programak / Programas | LANGILEAREN GASTUAK 1 GASTOS DE PERSONAL | ONDASUN ETA SERB.OHIKO 2 GTOS.CTES. BIEN.Y SERV | FINANTZA GASTUAK 3 GASTOS FINANCIEROS | TRANSFER. ARRUNTAK 4 TRANSFER. CORRIENTES | KONTINGENT. EZUSTEKOAK 5 CONTINGENC. IMPREVISTOS | INBERTSIO ERREALAK 6 INVERSIONES REALES | KAPITAL TRANSFER. 7 TRANSFER. DE CAPITAL | FINANTZA AKTIBOAK 8 ACTIVOS FINANCIEROS | FINANTZA PASIBOAK 9 PASIVOS FINANCIEROS | AURREKONTUA GUZTIRA TOTAL PRESUPUESTO |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| 01. Ogasuneko eta Finantzetako Zerbitzu Orokorrak/ Servicios Generales de Hacienda y Finanzas | 2.193,46 | 4.670,48 | | | | 8.009,60 | | | | 14.873,53 |
| 10. Zerga Administrazioa/ Administración Tributaria | 31.000,64 | 722,50 | | | | 2.964,27 | | | | 34.687,41 |
| 11. Herritarren Arreta eta Zerga Heziketa/ Atención ciudadana y Educación Tributaria | 3.100,74 | 438,87 | | 31,00 | | | | | | 3.570,61 |
| 20. Aurrekontuak eta Finantzak/ Presupuestos y Finanzas | 2.699,43 | 191,55 | | | | 188,04 | | | | 3.079,01 |
| 21. Zor Publikoa eta Foru Diruzaintza/ Deuda Pública y Tesorería | 639,21 | 55,00 | 9.500,00 | | | | | | 31.015,00 | 41.209,21 |
| 30. Zerga eta Finantza Politika/ Política Fiscal y Financiera | 2.253,35 | 56,00 | | | | | | | | 2.309,35 |
| 31. Erakundeekiko konpromisoak/ Compromisos institucionales | | | | 5.354.458,18 | | | | | | 5.354.458,18 |
| 40. Foru Auzitegi Ekonomiko-Administratiboa/ Tribunal Económico-Administrativo Foral | 1.326,26 | | | | | | | | | 1.326,26 |
| **Departamentua Guztira Total Departamento** | **43.213,09** | **6.134,39** | **9.500,00** | **5.354.489,18** | | **11.161,91** | | | **31.015,00** | **5.455.513,56** |

